Olagarro harrigarria

Olagarroak itsasoko animaliak dira, eta gorputz biribila, begi irtenak eta zortzi beso luze dituzte. Garroak oso indartsuak dituzte, bentosa ahaltsuz beteak. Munduko ozeano guztietan bizi dira olagarroak, baina ur epelak, tropikalak gustatzen zaizkie gehien. Askotan, itsas hondoan egoten dira, han aurki baititzakete gogokoen dituzten jakiak. Karramarroak, izkirak eta arrain txikiak jatea gustatzen zaie. Harrapakinak bentosen bidez harrapatu, eta gero ahoratu egiten dituzte.

Sarritan, olagarroak bakarrik bizi dira harriekin egiten dituzten gordelekuetan. Batzuetan, harrizko "ateak" ere egiten dituzte gordelekuetarako; hala, atea itxi eta seguru egon daitezke.

Olagarro bat, bere gordelekuaren aurrean.



Olagarroek tinta botatzen dute, arriskutik ihes egiteko.

Olagarro batek, bere orbainei esker, harrapakariak uxatzen ditu.

Arriskuari ihes egitea

Olagarroek arriskutik ihes egin dezakete, igerian oso azkarrak direlako, eta tinta lodi eta ilun bat bota diezaieketelako erasotzaileei. Horrek ihes egiteko behar beste denbora ematen die.

Olagarroak adituak dira mozorrotzen ere. Azalaren kolorea aldatu eta arrosa, urdin, marroi edo berde bihur dezakete, inguruan dituzten harriekin, hondarrarekin eta koralekin mimetizatzeko, eta hala, ikusezin bihurtzeko. Harriz estalitako algen itxura har dezakete olagarroek. Era askotako puntuak, marrak eta orbainak ere segundo gutxian sor ditzakete, jateko modukoa ez den zerbaiten itxura hartzeko.

Olagarroak, irristatuz, harrietako edo koraletako arrailetan ezkuta daitezke. Ez dute bizkarrezurrik. Izan ere, ez dute inolako hezurrik, eta gorputz osoa dute biguna. Hezurrik ez dutenez, ura bezala mugi daitezke, eta oso-oso leku txikietan sar dezakete gorputz osoa. Ezagunak dira espero ez duzun lekuetan agertzen direlako. Adibidez, olagarroak aurkitu izan dira oskoletan, zientzialarien tresnetan eta itsasoan utzitako botiletan.

Batzuetan, olagarroek oskolak ere erabiltzen dituzte ezkutatzeko. Bentosekin oskolak hartzen dituzte. Gero, besoekin gorputza biltzen dute, agerian oskola bakarrik utzita. Harrapariek, ondotik igarotzean, oskol zahar pila bat besterik ez dela pentsatzen dute.

Olagarro bat, oskolen azpian ezkutatuta.

Gauzak egiten ikastea

Felixa izeneko olagarro bat Alemaniako akuario batean bizi zen. Bere zaindariak janaria zuten kristalezko poteak irekitzen ikusi ondoren, berak bakarrik poteak irekitzen ikasi zuen. Tapa bere gorputzaren aurka estutu eta potea garroekin hartuta, bere hezurrik gabeko gorputza biratzen zuen potea irekitzeko. Gogokoen zuen janaria zuten poteak bakarrik irekitzen zituen; adibidez, karramarroena eta izkirena. Ez zien jaramonik egiten arrain arrunta zuten poteei.

Estatu Batuetako itsas zentro batean, Sustrai izeneko olagarro batek margotzen ikasi zuen. Margotzeko, mihise batera pintura botatzen zuten palanka batzuk mugitzen zituen. "Artelanak" olagarroaren arrainontziaren mantentze-lanak ordaintzeko saltzen zituzten.

Felixa, janari pote bat zabaltzen.



Sustrai, "artelanak" egiten.

Olagarroei zereginak ematea

Jendeari gustatzen zaio olagarroak ikustea haien ingurune naturala erakusten duten akuarioetan. Baina olagarroak erraz aspertzen dira, eta akuarioetako langileek olagarroak okupatuta egoteko zereginak asmatu behar dituzte. Adibidez, desmuntatzen diren buru-hausgarriak eta jostailuak ematen dizkiete.

Estatu Batuetako akuario batean, Sendoa izeneko olagarro bat gustura aritzen zen plastikozko pilota batekin jolasean eta pilota muntatu egin zitekeen bi erdiak biratuz. Zaintzaileak janaria jartzen zion pilotaren barruan, eta Sendoak pilota zabaldu, barrukoa jan eta berriro muntatu egiten zuen.

Olagarro bat, bere arrainontzian, jostailu batekin jolasean.

Zaintzaileak ezagutzea

Jostailuez eta buru-hausgarriez gain, olagarroei gustatu egiten zaie zaintzaileak eurak ukitzen eta eurekin jolasten denbora pasatzea. Olagarroek ikusten dutenean zaintzaileak badatozela janaria ematera eta burua laztantzen dietela, gorri bihurtzen dira, poz-pozik daudela adierazteko. Batzuetan, zaintzaileak agurtu ere egiten dituzte, garroen gainean tente jarri, eta aurrerantz makurtuz. Olagarroek atzeko "hankekin" salto egin dezakete, eta aldi berean, "besoak" mugitu, zaintzaileen arreta berenganatzeko.

Olagarroei janaria bezainbeste gustatzen zaie konpainia izatea. Olagarroek jaten amaitzen dutenean, garro bat altxatzen dute, eta gero beste bat, eta zaintzaileen eskuak eta besoak besarkatzen dituzte. Olagarroak eta zaintzaileak elkarri besoetatik helduta egoten dira, olagarroak zaintzaileei bentosen bidez leun helduta.

Olagarro bat, zaintzaileari besoetatik helduta.

1.
Artikuluaren arabera, zer baieztapen dira zuzenak olagarroei dagokienez?
Markatu erantzun zuzen guztiak.

- [ ] Gorputz biribilak dituzte.
- [ ] Zortzi garro luze dituzte.
- [ ] Ozeanoaren eremu hotzetan bakarrik bizi dira.
- [ ] Karramarroak eta arrain txikiak jatea gustatzen zaie.
- [ ] Ahoarekin harrapatzen dute janaria.

2.
Zer erabiltzen dute olagarroek beren gordelekuetarako ateak egiteko?

1

3.
Artikuluak dioenez, olagarroak "adituak dira mozorrotzen".
Zer esan nahi du horrek?

(A) Beste zerbaiten itxura har dezaketela.

(B) Oso igerilari azkarrak direla.

(C) Tinta beltza bota dezaketela.

(D) Forma bat baino gehiago har ditzaketela.

4.
Olagarroek ez dute hezurrik. Zer egin dezakete horri esker?

(A) Beste olagarro batzuekin gorde.

(B) Harriei heldu.

(C) Leku txiki-txikietan sartu.

(D) Algen itxura hartu.

5.
Olagarroak ezagunak dira ezohiko lekuetan azaltzen direlako.
Eman testuko adibide bat.

1

6.
Adierazi olagarroek harrapariengandik ihes egiteko erabiltzen dituzten bi modu.

1 **1.**

1 **2.**

7.
Zer ikasi zuen egiten Felixa olagarroak?

1

8.
Zer ikasi zuen egiten Sustrai olagarroak?

(A) Akuarioaren marrazkiak egiten.

(B) Mihise batera pintura botatzeko, palankak mugitzen.

(C) Bere tinta mihise batera pintura balitz bezala botatzen.

(D) Garroak hatzak balira bezala erabiltzen, margotzeko.

9.
Sustraik margolan onak egiten dituela uste al du idazleak?
Markatu erantzuna.

- [ ] Bai.
- [ ] Ez.

Adierazi testuak ematen duen arrazoi bat.

1

10.
Akuarioko langileek zergatik ematen dizkiete olagarroei buru-hausgarriak?

1

11.
Zer jostailurekin ibiltzen zen Sendoa gustura jolasean?

1

12.
Zer bi gauza egiten dituzte olagarroek zaintzaileak ikusteaz poztu direla adierazteko?

1 **1.**

1 **2.**

13.
Olagarroei gustatu egiten zaie zaintzaileen ukituak jasotzea. Zer egiten dute olagarroek hori erakusteko?

(A) Zaintzaileekin batera buru-hausgarriak egin.

(B) Goseak direnean gora eta behera ibili.

(C) Garroak altxatu eta zaintzaileei besoetatik heldu.

(D) Janari guztia jan.

14.
Idazleak uste du olagarroak "harrigarriak" direla. Adierazi akuarioetako olagarroek egiten ikasi duten hiru gauza harrigarri.

1 **1.**

1 **2.**

1 **3.**

13.
Artikuluan irakurri duzunean oinarrituta, akuarioak onak al dira olagarroentzat?
Markatu erantzuna.

- [ ] Bai.
- [ ] Ez.

Eman zure erantzuna azaltzeko arrazoi bat.

1

Original ID	TheAmazingOctopus
Title	The Amazing Octopus
Answer code	
Images	